

ZALDIBIA ERABERRITZEN

Eraikin publikoen gaineko ekintza plana
herritarrek garatzeko
partaidetza prozesua, 2017



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. IBILBIDEA. EGINDAKO LANAREN KRONOLOGIA	4
→ ZALDIBIAREN ETORKIZUNA, 2014	4
→ 2015-2019 URTEETAN ZEHAR UDAL GOBERNUAK EMANDAKO URRATSAK	5
→ ERAIKIN PUBLIKOEN GAINEKO EKINTZA PLANA, 2016	5
→ ZALDIBIA ERABERRITZEN, 2017	5
→ ATE IREKIAK JARDUNALDIA	6
→ UDALETXE BERRIA-PLAZA INGURUNEA: IDEIA LEHIAKETA	6
3. ATE IREKIAK JARDUNALDIKO EMAITZA NAGUSIAK	9
→ UDAL ERAIKINA ERABERRITZEKO IDEIA LEHIAKETA	9
→ LEHIAKETARAKO PLEGU TEKNIKOEI DAGOKIENEAN	10
→ KULTUR ETXE ZAHARREKO ZERBITZUAK ARTXANBERRIRA ERAMATEA	10
4. IDEIA LEHIAKETAKO EMAITZA NAGUSIAK	11
→ IDEIA-LEHIKETAKO LEHEN FASEA	11
→ IDEIA-LEHIKETAKO BIGARREN FASEA	13

1. SARRERA

2014 urteaz geroztik herriko etorkizunaz gogoeta egiten eta erabakiak hartzen ari dira zaldibiarrek, eta zeregin horretan, Aztiker Soziologia Iker-guneak aholkularitza lanak egin ditu 2016 eta 2017 urteetan.

2014an abiatu zen *Zaldibiaren etorkizuna* partaidetza prozesuan landutakoan oinarrituz, udalak *Zaldibiako Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Plana* sortu zuen 2016an. Aldi berean, partaidetza prozesua fase berri batean sartu zen 2016-2017ko neguan. Bata zein bestea oinarri hartuta, prozesuaren gidaritza eta kontraste lanak egin dituen Talde Eragileak 2017 urterako plangintza proposatu zion Udalbatzari. Plangintza herritarren partaidetzarekin garatu eta gauzatzeko erabakia hartu zen, besteak beste, ondorengo erronkak azpimarratuz:

- Herri dinamika zabala egitea prozesuaren nondik norakoak ezagutzera emateko, herritarrekin kontrastatzeko eta haien balorazioak nahiz ekarpenak jasotzeko.
- Plaza eraberritzeko proiektu-lehiaketa ireki eta berau garatzea, herritarrak prozesu horretan hasieratik amaierara inplikatur.

Dokumentu honetan, hain zuzen ere, 2017an zehar egindako lanaren emaitza nagusiak jaso ditugu.

2. IBILBIDEA. EGINDAKO LANAREN KRONOLOGIA

Hiru urteko lanak ekarri gaitu honaino. Lan horren jarraipena jasotzen dute orrialde hauek. Horrexegatik, 2017ko lanaren emaitzak aurkeztu aurretik, orain arte urratutako ibilbidearen zenbait zertzelada ekarri nahi izan ditugu orriotara.

→ ZALDIBIAREN ETORKIZUNA, 2014

Herri antolamendua eta azpiegituren erabilerak berrantolatzeko eta egokitzeko beharretik abiatuta, Zaldibiako Udalak herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko parte hartze prozesu bat abiatu zuen 2014an.

Bederatzi hilabete iraun zuen prozesuan 200 herritar inguruk parte hartu zuten eta gogoeta horien emaitza da "Zaldibiaren etorkizuna herritarren esku" dokumentua.

Bertan jasotzen dira etorkizuneko herri antolamenduari lotuta herritarrek proposatu eta lehenetsi zituzten hainbat proiektu. Lehenetsunezko proiektuak:

- Plazako frontoia estaltzea
- Udal eraikina eta kultur-etxe zaharra eraikin berri batekin ordezkatzeta.
- Haur-eskola berria eta eskola sarreran aterpea.
- Herri-Antzokian berrikuntzak.
- Artxanberrin: udal-almazena eta kultur-gunea
- Autoak herrigunean: azterketa bat egin eta planteamendu bat landu

Premiazko erronka horietako bat da udaletxearen eraberritzea, dokumentuaren "Udaletxe eta kultur etxe zaharra ordezkatzeko dituen eraikin berriaren erronka begibistan" atalean irakurtzen dugunez.

Herritarrei eraikinak nolakoa izan beharko zuen galdetu zitzaion orduan, eta ondorengoak jaso: Irisgarritasuna bermatzea, kanpo estetika ingurura egokitzea (inguruko joera eraldatuko ez duen eraikina izatea), Beti Gaztekoen lokala bertan kokatzea, udal eta kultur eraikin zaharrarekin bat egitea, besteak beste...



Halako dimentsioa duen erronkak zehaztasuna errekeritzen du derrigorrean, eta proiektua sakon definitzeko ezinbestekotzat jo zen parte hartze prozesu berri bat.

→ 2015-2019 URTEETAN ZEHAR UDAL GOBERNUAK EMANDAKO URRATSAK

2014ko ondorio haiek gauzatzeko helburuarekin, Zaldibiako Udal Gobernuak ondorengo urratsak adostu zituen:

- Frontoia estaltzea: Eliza eta Ondare Sailarekin trabak (2015).
- Udal-biltegia Artxanberrin: gauzatuta (2015-2016).
- Haur-eskolako zorua eta estalpea (hezetasun arazoengatik urgentziaz) gauzatuta (2016).
- Udal Eraikinen Ekintza Plana: osatuta (2016).
- Akordio Politikoa landu eta Talde Eragilea osatuz partaidetza prozesuari ekin (2016).
- 3 lan tailer eta HERRI JARDUNALDIA gauzatu (2016).
- 2017rako plangintza zehaztuta

→ ERAIKIN PUBLIKOEN GAINEKO EKINTZA PLANA, 2016

Zaldibiaren etorkizuna prozesu parte hartzailean landutakoan oinarrituz, udalak "Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Plana" sortu eta bide-orri ezberdinak proposatu zituen Zaldibiaren etorkizunean beharrezko diren ekipamendu publikoak berritzeko. Dokumentu horretan esku hartze publiko bakoitzaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketak bildu ziren.

Planak herritarren partaidetzarako aukerak eskaintzen dituen arren, ezinbestean, kontuan hartu behar izan dira proiektua beraren ziurgabetasun ekonomikoa, eta horrek, prozesuan erabakitakoak aurrera eramateko sortu ditzakeen arazoak.

Hori dela eta, proposamen honek *Zaldibiaren etorkizuna* prozesuaren eta finantzabide berriak lortu arteko bidea jorratzeko sortu zen proposamen hau. 2016. urtean zehar garatu ziren egitekoek hiru oinarri izan zituzten:

1. Herritarren aniztasuna kontuan hartzeko herri prozesu zabal baten oinarriak sortzea.
2. Prozesuaren arrakastarako bermeak lortzea.
3. Finantzabideak lortu ahala proiektu ezberdinen definizio parte hartzaileari ekitea.

2016. urterako proposatu zen proiektuak ondorengo urratsak aurreikusi zituen:

1. Prozesu parte hartzailearen gaineko adostasun politikoa
2. Talde eragilea izendatu, sortu eta proposamena aurkeztu
3. Talde eragileak plazako aterpeari irtenbidea ematea eta hori Udal Eraikinen Ekintza Planaren txertatzea.
4. Herritarrekin Eraikin publikoen gaineko Ekintza Planaren kontrastea.
5. Talde eragileak planifikazio adostu bat sortuko du.

→ ZALDIBIA ERABERRITZEN, 2017

2016ko azaroa eta 2017ko otsaila artean garatutako lan fasearen emaitza izan zen 2017ko erronkak zein ziren adostea:

1. Plaza eraberritzeko IDEIA-LEHIAKETA egitea. Plazan udal eraikin berria eta aterpea behar ditugula ondorioztatu zen eta aukera ezberdinak mahai gainean izateko, arkitektoentzat lehiaketa antolatzea erabaki zen.
2. Aurrekoari lotuta, egun Kultur Etxe zaharrean ematen diren zerbitzuak lekualdatzea, horretarako Udalak duen Artxanberriko lokala egokituz.

Udalak bi erronka hauei erantzuteko adina diru dagoela ziurtatzean, partaidetza fase berri bati hasiera eman zitzaion.

→ ATE IREKIAK JARDUNALDIA

Maiatzaren 26an ATE IREKIAK ospatu ziren 2017ko erronka ziren bi guneetan: HERRIKO PLAZAN eta ARTXANBERRIN. Bertan, gune bakoitzari dagozkion azalpenak jaso eta zalantzak argitu nahiz iritzia emateko aukera ere izan zuten herritarrek.



Hiru gai nagusiren inguruan eskatu zitzairen iritzia herritarrei: kultur etxe zaharreko zerbitzuak Artxanberrira eramatearen egokitasuna; udal eraikina eraberritzeko ideia lehiaketan herritarren parte hartzeak nolakoa izan behar zuen; eta azkenik, ideia lehiaketarako plegu teknikoek jaso beharko zutenaren inguruan.

Ate Irekiak jardunaldian jasotako iritzien arabera antolatu da prozesuaren bigarren eta azken fasea.

→ UDALETXE BERRIA-PLAZA INGURUNEA: IDEIA LEHIAKETA

Lehiaketaren xedea:

Udaletxe berria egiteko ideiak aurkeztea aurreproiektu gisa adierazita. Kontuan izan beharko da plazako ingurune osoa ere antolatu beharko dela eta gaur egungo udaletxea zutik mantendu beharko dela berria egin arte.

Epaimahaia:

Horrelako lehiaketa guztietan bezala, hautaketaren ardura izango duen epaimahaia eratu da. Epaimahaia bederatzi lagunek osatzen dute:

- Hiru Udal ordezkari: Alkatea (epaimahaiburua) eta bi zinegotzi (talde politiko bakoitzetik bana)
- Hiru arkitekto (Udaleko bat eta Elkargoak izendatutako beste bi)
- Parte hartze prozesuko Talde Eragileak hautatutako hiru herritar ordezkari.

Epaimahaiko hiru herritar ordezkariak, gainontzeko zaldibiarren iritzia epaimahaira eramateko ardura dute eta horretarako antolatu da bost eguneko erakusketa publikoa. Idazkari lanetan, Udalbatzako idazkariak berak jardun du.

Lehiaketaren faseak:

Bi fase izan ditu lehiaketak.

- 1) Lehiaketarako baldintzak adostu ondoren ireki zen lehiaketa, 2017ko ekainaren 23an, eta arkitektoek irailaren 1a bitarte izan zuten beren proiektuak aurkezteko.

Guztira 22 proiektu aurkeztu ziren eta epaimahaiaren lehen galbahea igarota, 16 izan ziren onartuak.



Herritarrek 16 proiektu hauek ezagutu eta baloratzeko, berriz, erakusketa irekia antolatu zen irailaren 14 eta 18 artean; erakusketak iraun artean orotara 330 zaldibiarren balorazio eta iritzia jaso ziren.

- 2) Bigarren fasearen irabazleari Udaletxe berria gauzatzeko Proiektua idazteko adjudikazioa emango dio Udalak. Lehen faseko 22 proiektuetatik hiru proposamen sailkatu dira eta 4.000€ko saria jaso du bakoitzak horregatik.

Lau izan dira proiektuak baloratzeko fase honetan erabili diren irizpideak: Proposamenaren kalitate teknikoa; Hirigintzako bideragarritasuna eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa; Eraikuntzaren energia modeloa, eta; Ordainsariaren proposamena ekonomikoa.

Esleipen edo hautatze prozedurarako, berriz, ondorengo puntuaketa erabili da:

- a) Espazio publikoaren antolamenduaren proposamena: 25 puntu
- b) Egokitasun arkitektonikoa eta hiri-ingurunearekiko egokitzapena. Emandako irtenbidearen kalitatea eta xede duen errealitatean nola integratzen den. 50 puntura arte.
- c) Proposatutako eraikuntzaren modelo energetikoa: 20 puntura arte
- d) Ordainsariaren proposamena ekonomikoa: 5 puntura arte.

Epaimahaiaren erabakiz, sailkatutako hiru proiektuetako bat lehiaketatik kanpo geratu da baldintzak betetzen ez zituelako, eta ondorioz, herritarrek bi proiektu baloratu behar izan dituzte oraingoan.

Bigarren erakusketa publikoa kultur etxe zaharrean antolatu da, azaroaren 16 eta 20 artean. Epaimahaiarekin aurrez adostu da balorazioak jasotzeko fitxa edo formularioa, eta hala, herritarrek puntuaketako a) eta b) irizpideak baloratu dituzte herritarrek. Izan ere, duten izaera teknikoagatik beste bi irizpideak epaimahaiak baloratu ditu.

Azken fase honetan iritzia ematean bi gauza bermatu nahi izan dira:

- a) Pertsona bakoitzak balorazio orri bakarra betetzea
- b) Balorazio orriak zaldibiarrenak edo kanpokoak diren bereiztea



3. ATE IREKIAK JARDUNALDIKO EMAITZA NAGUSIAK

Esan berri den bezala, 2016ko azaroa eta 2017ko otsaila artean garatu partaidetza prozesuan 2017 urterako erronkak zein ziren adostu zen. Bi dira partaidetzari dagokionean azpimarratzekoak:

1. Udaletxea-plaza ingurua eraberritzeko ideia-lehiaketa egitea.
2. Aurrekoari lotuta, egun Kultur Etxe zaharrean ematen diren zerbitzuak lekualdatzea, horretarako Udalak duen Artxanberriko lokala egokituz.

Udalak, bestalde, proiektuak gauzatu ahal izateko finantzaketa bideak jorratzeko konpromisoa hartu zuen. 2017rako bi erronka hauei erantzuteko beharrezko diru kopurua ziurtatuta, eta aurrera begira espektatibak onak izanik, partaidetza fase berri bati hasiera eman zitzaion.

Fase berri honen baitan, maiatzaren 26an, arratsaldeko 16:00etatik 20:30ak bitarte, ATE IREKIAK JARDUNALDIAK ospatu ziren 2017rako erronkatzat hartu ziren bi guneeetan: Herriko plazan eta Artxanberrin. Bertan, gune bakoitzari dagozkion azalpenak jaso eta zalantzak argitu, nahiz iritzia emateko aukera ere izan zuten herritarrek.

Hiru gai nagusiren inguruan eskatu zitzairen iritzia herritarrei:


1. Kultur etxe zaharreko zerbitzuak Artxanberrira eramatearen egokitasunaz;
2. Udal eraikina eraberritzeko ideia lehiaketan herritarren parte hartzeak nolakotasunaz;
3. Ideia lehiaketarako legu teknikoek jaso beharko zutenaz.

Arratsaldean zehar 48 galdetegi bete eta jaso ziren. Jarraian galdetegi horien emaitzen laburpen bat aurkezten da:

→ UDAL ERAIKINA ERABERRITZEKO IDEIA LEHIAKETA

1etik 10era, baloratu lehiaketa urbanistikoan parte hartzeko aukera.


1etik 10era, baloratu lehiaketa urbanistikoko epaimahaian hiru herritarrek parte hartzeko aukera.



→ LEHIAKETARAKO PLEGU TEKNIKOEI DAGOKIENEAN

Udal Eraikin berrian zehazten diren zerbitzuak egokiak iruditzen zaizkizu?

Udal Eraikinaren forma baldintzak egokiak iruditzen zaizkizu? Baloratu 1etik 10era.




→ KULTUR ETXE ZAHARREKO ZERBITZUAK ARTXANBERRIRA ERAMATEA

1etik 10era nola baloratzen duzu espazio kopurua?

1etik 10era nola baloratzen duzu erabileraren aniztasuna?

1etik 10era, egokia al da espazioaren antolaketa bertan egingo diren jardueretarako?



4. IDEIA LEHIAKETAKO EMAITZA NAGUSIAK

Atal honetan udaletxe berria-plaza ingurunea eraberritzeko ideia lehiaketan zehar egindako lanaren emaitzak aurkezten dira. Arestian esan bezala, ideia-lehiaketa edo hautaketa prozedurak bi fase izan ditu:

1. 2017ko ekainaren 23an zabaldu zen lehiaketa eta arkitektoek irailaren 1a bitarte izan zuten proiektuak aurkezteko epea. Zaldibiarrek aurkeztutako proiektuak ezagutu eta baloratzeko erakusketa irekia antolatu zen irailaren 14tik 18ra Karreraenen. Epaimahaiaren erabakiz, aurkeztu ziren 22 proiektuetatik 16 eraman ziren erakusketara, gainontzeko 4 proiektuek ez bait zituzten adostutako baldintza gutxienekoak betetzen.

Erakusketako balorazioak epaimahaira eraman ziren eta bertan erabaki zen bigarren urratsera zein 3 proiektu igaroko ziren. Sailkatutako 3 proiektuek 4.000€ko saria jaso zuten bigarren urratseko zereginei aurre egiteko.

2. Bigarren fasean 3 proiekturen artean erabaki behar zen. Eskatutako baldintzak betetzen ez zituela eta, berriro ere epaimahaiaren erabakiz proiektu bat lehiaketatik kanpo geratu zen.

Zaldibiarrek aurkeztutako proiektuak ezagutu eta baloratzeko bigarren erakusketa irekia antolatu zen azaroaren 16tik 20ra kultur etxe zaharrean. Bigarren fasearen irabazleari Udaletxe berria gauzatzeko Proiektua idazteko adjudikazioa eman dio Udalak.

Jarraian bi erakusketetan zaldibiarrek egindako balorazioen emaitzak aurkezten dira.

→ IDEIA-LEHIKETAKO LEHEN FASEA

- Erakusketa: irailaren 14-18 Karreraenen
- Lehiaketara aurkeztutako proiektuak: 22
- Epaimahaiaren galbahea igarota erakusketara eraman ziren proiektuak: 16
- Parte hartzea: 330 zaldibiarren balorazioak eta iritziak.

Ondorengo koadroetan jasotzen diren emaitzak osatzeko, ordea, 287 balorazio erabili dira. Gainontzeko 43 zaldibiarren emaitzak ere kontutan hartu dira, noski; baina hauek LH1 eta LH2 mailako ikasleek eginak dira eta era ezberdin batean jaso direnez gero, ez dira koadro hauetan agertzen.

ADINA		
KATEGORIA		KOPURUA
16 URTE BAINO GUTXIAGO		69 (*)
16 ETA 60 URTE ARTEAN		184
60 URTE BAINO GEHIAGO		34
TOTALA		287

(*) Zenbateko honi LH1 eta LH2 mailako 43 zaldibiarrek gehitu behar zaizkio

GENEROA		
KATEGORIA		KOPURUA
EMAKUMEZKOA		152
GIZONEZKOA		119
BESTERIK		3
HUTSIK		8
TOTALA		287

Proiektuak baloratzeko zaldibiarrek erakusketan gogokoen izan dituzten hiru proiektu hautatzeko aukera izan dute, eta hauek hurrenkera batean jaso dira: lehenengo aukera, bigarren aukera eta hirugarren aukera.

Galdetegia bete duten pertsonak ez dituzte derrigorrean hiru proiektu aukeratu behar izan, eta honela, jasotako hainbat galdetegietan aukera bakarra agertu da, baita bi ere, eta bat bera ere aukeratu ez duten zaldibiarrek ere izan dira.

Jasotako erantzunak nolabait aurkezteko aukeratutako proiektuen hurrenkera hartu dugu kontutan; hau da, lehen aukerari 3 puntu eman dizkiogu, bigarrenari 2, eta hirugarrenari 1.

ERREF.	PROIEKTUA	EMAITZA
1	ARTE ARTEAN	37
2	LURRA ZLDB	11
3	ZALDI 2	84
4	BI ENPARANTZA	49
5	HARRIZ HARRI, HERRIA IRRI	31
6	E2-53	155
7	BiZaldi (2)	157
8	ARETO ZABALA	119
9	LAUKITUTA	72
10	BIRSORKUNTZA	157
11	BI ZALDI (1)	231
12	TXINDOKI	79
13	JALGI HADI ZALDIBI PLAZARA	89
14	BIAK BAT	45
15	ARIMA	87
16	ZER BERRI? ZALDIBIA BERRI	198

Erakusketan iritziak bildu ostean, partaidetza prozesuaren jarraipena egiten duen **talde eragilea** bildu zen herritarren artean nagusi ziren aukerak aztertzeko. Erabakia errazteko eta, proiektuek jasotako balorazioen xehetasunak aintzat hartzeko, balorazioan puntuazio gehien jaso zuten 5 proiektuen zehaztapenak aurkeztu ziren.

Zehatze edo banakatze honen bidez, proiektu bakoitza zenbat aldiz aipatua izan den ikusi daiteke eta baita zenbat herritarrentzat izan den euren lehenengo, bigarren edo hirugarren aukera.

PROIEKTUAREN IZENA	Puntuazio osoa	Zenbat aldiz aipatua	Lehenengo aukera	Bigarren aukera	Hirugarren aukera
BI ZALDI (1)	231	103	46	36	21
ZER BERRI? ZALDIBIA BERRI	198	93	37	31	25
BIRSORKUNTZA	157	73	32	20	21
BiZaldi (2)	157	72	32	19	20
E2-53	155	70	36	13	21

Epaimahaiaren ebazpena: Bigarren fasera pasatu ziren proiektuak

- BI ZALDI (1),
- ZER BERRI? ZALDIBIA BERRI?
- LAUKITUTA.



→ IDEIA-LEHIKETAKO BIGARREN FASEA

- Erakusketa: azaroaren 16-20 Kultur etxe zaharrean.
- Bigarren fasera igarotako proiektuak: 3
- Epaimahaiaren galbahea igarota erakusketara eramán ziren proiektuak: 2
- Parte hartzea: 274 zaldibiarren balorazioak eta iritziak.

Jasotako balorazio fitxen artean 7 baliogabeak izan dira eta beste 42 gehiago ez dira ondorengo zenbaketan kontatu. Azken hauek, izan ere, LH1 eta LH2 mailako ikasleek beteak izan baitira, eta adin talde honek dituen ezaugarriak medio, proiektuak baloratzeko gainontzeko taldeek erabili duten fitxa edo ereduaren bestelakoa baliatu da.

Jarraian aurkezten diren emaitzak, beraz, 225 zaldibiarren iritzietan oinarritu dira:

ADINA	
KATEGORIA	KOPURUA
16 URTE BAINO GUTXIAGO	73 (*)
16 ETA 60 URTE ARTEAN	117
60 URTE BAINO GEHIAGO	26
EZ DUTE ADIERAZI	9
TOTALA	225

(*) Zenbateko honi LH1 eta LH2 mailako 42 zaldibiarrek gehitu behar zaizkio

GENEROA	
KATEGORIA	KOPURUA
EMAKUMEZKOAK	101
GIZONEZKOAK	93
BESTERIK	17
HUTSIK	14
TOTALA	225

10 lagunek lehiaketa hutsik uztea erabaki dute.

Gainontzeko zaldibiarren balorazioak proiektu bakoitzaren arabera aurkezten dira.

Proiektu bakoitzaren baitan baloratzeko eskatutako hiru ezaugarrien emaitzak jaso dira:

1. Ezaugarria: proiektuak proposatzen duen **espazio publikoaren/plazaren antolamendua** (eraikinaren, estalpearen, jolas gunearen... kokapena).
2. Ezaugarria: udaletxearen funtzio eta jardueretarako proiektuaren **egokitasun arkitektonikoa** (barne-antolamendua).
3. Ezaugarria: proiektua herri-ingurunearekin nola egokitzen den, ingurunean nola integratzen den (kanpo itxura)

Proiektuen hiru ezaugarriak 1 eta 5 arteko puntuazio aukerarekin baloratu dira, eta batz bestekoa, beraz, 5eko puntuazioaren gainean egina da.

Aitzitik, epaimahaiko irizpide eta puntuatze eredura egokitutako batz bestekoa ere aurkezten da. Bigarren batz besteko hau 25eko puntuazioaren gainean egin da.

PROIEKTUA: BI ZALDI

	Jasotako erantzunak	Jasotako puntuazioa	Batz bestekoa	Batz bestekoa (25)
1-ezaug.	215	865	4	20
2-ezaug.	212	810	3,8	19
3-ezaug.	214	811	3,9	19,5
				19,5

PROIEKTUA: LAUKITUTA

	Jasotako erantzunak	Jasotako puntuazioa	Batz bestekoa	Batz bestekoa (25)
1-ezaug.	208	638	3	15
2-ezaug.	207	655	3,1	15,5
3-ezaug.	206	634	3	15
				15,16

Lehenengo fasean egin bezala, erakusketatik igaro ziren zaldibiarren balorazio-emaitzak talde eragilean aztertu ziren epaimahaira eraman aurretik.

Bigarren faseko puntuaketa irizpideak ezarrita zeuden arauetan. Lehen bi irizpideetan (a eta b) epaimahaikide guztiek zuten bozka aukera, hirugarrenean (c) arkitekto eta udal ordezkariak bakarrik (energia eredua) eta azken irizpidea (d) arauak ezartzen zuen puntuaketaren arabera kalkulatu zen.

Epaimahaiak ondorengo puntuaketa irizpideak erabili zituen esleipen lanetarako:

- a) Espazio publikoaren antolamenduaren proposamena: 25 puntura arte.
- b) Egokitasun arkitektonikoa eta hiri-ingurunearekiko egokitzapena. Emandako irtenbidearen kalitatea eta xede duen errealitatean nola integratzen den. 50 puntura arte.
- c) Proposatutako eraikuntzaren modelo energetikoa: 20 puntura arte.
- d) Ordainsariaren proposamena ekonomikoa: 5 puntura arte.

Ondorengo koadroan epaimahaiak egindako puntuaketa eta balorazioa aurkezten da:

Irizpidea	BI ZALDI	LAUKITUTA
Espazioaren antolamendua (25p.)	18,30	17,00
Arkitektura eta integrazioa (50p.)	37,72	34,16
Eredu energetikoa (20p.)	10,83	15,50
Ordainsaria (5p.)	1,25	5,00
GUZTIRA	68,13	71,66

Gauzak honela, epaimahaiak ebatzi zuen ideia-lehiaketako irabazlea, eta honenbestez udaletxe berria gauzatzeko proiektua idazteko adjudikazioa jaso duen proposamena, LAUKITUTA izenekoa da.



AZTIKER KOOP. ELK. TXIKIA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea z/g

20140 Andoain (Gipuzkoa)

943593006

www.aztiker.eus – idazkaritza@aztiker.eus